

X  
**AMOREZCO**

**ETA DOLOREZCO**


**JESUCRISTOREN PAUSOAG**

edo

**CALVARIO SANTUAC.**

DON MANUEL GOICOECHEA

Bedayoco lenengo Abadeac ver-  
soan jarriac.

  
**IRUÑEAN:**

Saturio Bandresco moldetan eguiña.

1863.

No est. por via...



# CALVARIO SANTUAC.

Aviso a devocio onetan Jesu-Cristo requin hitz eguiteco, bella unico jarri, soseguz ciñatu:

Nere Jesu-Cristo Jauna edo Acto Contriciozcoa viotzetic  
eguin, etc. etc.

Seguidoan ofrecimentua,  
zori gaiztoan izan ezdedin etc.

Estacio gustiac astendirade  
verso onequin:

Lenengo estacioan  
dolorez erruquituric,  
consideratu Jesus gureac  
cembat gaduzcan costaric.

Mudatuaz, Bigaren, Irugarren,  
Laugarren estacioan etc.  
eta estacio gustiac acabatuco  
diradi, lendabicicoa acabatzen  
dan moduan.

## OFRECIMENTUA.

Zori gaiztoan izan esdedingu jayo guiñan eguná;  
asi gaitian consideratzen,  
sobra da galdu deguná.

Nai ezpadagu burlaric eguin  
Jesus onaren pausoaz;  
etsi dezagun aldebatera,  
mundu ontako guztoaz.

Jesus ona da gure maisúa  
yha diozagun icasi;  
nola eguin eriotzean,  
Lucifergandic igasi.

Gure maisua es humildadean  
pasaturican mundua;  
Calvarioan emacion  
bere Aitari contua.

Nay badezu bear bejala  
nola izan zan jaquin;  
deseatzen du esplicatcera,  
amalau estacioquin.

Semea illa cegoalaric,  
sepulture santuan;  
Ama maiteac Jerusalendic,  
pauso oc asi cituan.

Gueroz ere pasacituan,  
amabost urte munduan;  
eracusten guri pauso oc  
nola eguinbear guindun.

Ama Semeen amorioa,  
oguei ta amairu urtean;  
trabajoequin vizitu ciran,  
ez gu galzeco ustean.

Ama dezagun caridadea,  
neque arequin munduan;  
nai ezpadugo damuric izan,  
eriotzaco orduan.

Jesus justoae ama orrequin,  
gostaric gauzcan bejala;  
guiatcen gaitu vide onetic,  
bacoitzac segui dezala.

Gogo onaquin estacio oyec,  
iñore eguiten baditu;  
purgatoriotic asco anima,  
libratuko ditu.

Eguin dezagun obrada,  
eta iraci seguroa;  
ceiñ izangoda falta zayona  
seguitceco gogoa.

Gu guera Aita, pecatariac,  
bañan beguira Jesusi;  
aren amorez bearditugu,  
paso santu oc icasi.

Gure pobreza unituric,  
aren amorío aundien;  
izan bitez gure pauso oc,  
Jauna berroren glorien.

Aita Santuac concedituric  
dauscan indulgenciac;  
deseo degu irabastia,  
pararic diligenciac.

Indulgenci oye entrega itzazu:  
Ama, Aitaren escuan;  
berac naidituan anima ayec,  
sartu ditzala ceruan.

Uteiric bada Jauna berori,  
anima oyen contuá;  
asitcen guerade consideratcen  
Cristoren Pasio Santuá.

Cere maisuac deitcen dizu,  
bere gurutce santutic;  
pecataria segui zadazu,  
vide onetan gogotic.

Ecus nadazu nola nagoan,  
llagaturican gustiá;  
cer alnuquean eguin gueyago  
ustea bañan viciá.

Ezdizut bada oyen paguan,  
beste gauzaric escateen;  
ez nazazula arren paratu,  
berriz onela penatcen.

Eguin dacoaz erruquiturie  
jo zadazu atariá:  
iriquitceco deseoz nago,  
bay arren pecatariá.

Acorda zaitez batayatcean  
emancen duan hitz arrez;  
naicenduala renunciatu  
munduaz, eta Luciferrez.

Non da posible descansatzea,  
daucazun vici mroduan;  
ezbadaquizu egongo ceran,  
biyar goicean munduan.

Pensaezazu eriotzean,  
ta asi contuac zucencen;  
etzaiteala sobre siatu,  
gueyegui nazu penalcen.

Nic däquit ongui cer pasacenda  
zure confesioaquin,  
ez nazu arren enganatuco  
jarri zaitea cerequin.

Asi zaitea engañalu gabe,  
instante onez baljatcen  
nay ezbadezu negarrez egon  
infernuetan erretcen.

Utz eguin dezu viortu zaitez  
ez biar, baicic bereala;  
nai badezu penitencia,  
ongui etorri cerala.



## LENENGO ESTACIOA.

Lenengo estacioan  
dolorez erruquituric;  
consideratu Jesus guréac  
cembat gaduzcan costaric.

Ostirel Santu goicean.  
eta Pilatos Jaunaren echean;  
pillareari lotcen diote  
patioaren erdian.

Gure jabea ecusirican,  
Pilatos orrec onela;  
sei soldaduri aguincendie,  
azotatceco berela.

Odol uslutzan cijoalaric  
vere viciez etsiric;  
paracioten buru santua,  
aranza puntez josiric.

Jesus gurea desmayaturic  
I Oh Pilatosen cruela;  
Jerusalendic ateratceco  
campoan il bear zuela.

Cale gustiac pasa citzala,  
gurutce pisu batequin:

bere artan josi dezela  
eta bi lapur ayequin.

Estacio bacoitzaren acaberan esaten-  
dana.

Pecataria iriqui ditzazu,  
dembora dala veguiac  
pecatu batec berritcen ditu  
Jesusen llaga gustiec.

Pecadoria izandu naiz ni,  
damudet vioz gustiaz;  
bertatic bada combertitzen naiz  
Jauna misericordiaz.  
Aita gurea, Abe Maria, eta gloria eta  
guero, bedicatua, eta alabatua izan de  
dilla Jesusen pasio santua, eta Ama  
viryinaren concepcio garbia; indaz Jau-  
na betico zure gracia Amen.

Onela acabatzen dirade estacio gus-  
tiac, lurrari musu eguinaz.



## BIGARREN ESTACIOAN.

Pauso onetan paratceco  
señian calbarioa;  
quendu cioten cruealdadeaz,  
aranzaquico coroa.

Paraturican bada verriro  
gurutcearequin coroa;  
Jerusalendic padecilcera,  
campora orain dijoa.

Gurutcea da pisua  
ta dijoa affilituric;  
ala ere escu santua,  
atceco aldera esturic.

Bere lenengo soñecoac  
azotatceco quenduae;  
emen paratcen dazquiote  
ezagu dezan munduac.

Gurutce artan artucituan  
gure pecatu pisuac;  
anay ohy cigun amorioa  
ezagu dezan munduac.

*Pecataria &*

## IRUGARREN ESTACIOAN.

Pauso onetan gure jabea,  
lendabikico aldian;  
indarren faltan erorcenzacu,  
gurutcearen azpia.

Emen Jesusen llaguetatic  
saltatu ciran odolac;  
causac dirade combertitceco,  
ezpaguerade marmolac.

Jequi cedilla zautcenzulen  
cupide gabé judeo  
eranzun cien ez da posible  
garaitcen nau carga onec.

Lepotic cedukan soca,  
ta ille, eta vizarretic  
judu gaistoac tiratuceco  
etceduquin cupideric.

Beguiraturic gustietara,  
lagunic etzan aguiri;  
combeni zana equin cezala  
escatucion Aitari,

*Pecataria &*



## LAUGARREN ESTACIOAN,<sup>11</sup>

Pauso onetan ecusi zuan,<sup>no senu?</sup>  
virginac seme justoa; <sup>neibiz osoaldizbest</sup>  
cijoalaric borrero aquin <sup>zello norribi</sup>  
soca gogorrez estua. <sup>edizgoz nerrokoeng</sup>

Iehasobat eguinic cœuden <sup>el zemid</sup>  
amaren vegui ederrac; <sup>leho nazio utticoz</sup>  
etcion usten itceguiten <sup>no sberib osenzo</sup>  
eztarriaco odolac. <sup>zilemaitz eliztagoeng</sup>

Ecusiric seme justoac <sup>elliboz ispet</sup>  
ama maitea negarrez; <sup>subij Adag sibiuz</sup>  
desmayaturic gueldituzan, <sup>zelb zurruze</sup>  
sentimentuz ta dolorez <sup>no uan erdiene</sup>

Cein zorrotza zan Ama Semeac,  
pasacituan espata, <sup>sizkuzziv zlo zeli at</sup>  
bear bezala esplicatzeco <sup>ait ospotzeng ubiq</sup>  
ojala baniz Profeta. <sup>zibligo alzopuberto</sup>

Pauso onetan asi ta <sup>arg. oiztularilogi</sup>  
enterratu artian <sup>ziluge osakie zilugoi</sup>  
seme onari seguitu cion <sup>re eaus moduko</sup>  
pasio santu gustian. <sup>zistia oiztulako</sup>

*Pecataria &c.*

## BOSTGARREN ESTACIOAN.

Pauso lastima garri onetan,  
 juduec ceuden etzirie; etzala Jesus allegatuco,  
 calbariora viciric.

Diru arequin asi ciraden,  
 gende artean galdetcen;  
 y á iñorc juan naizuan  
 guizon oni laguncen.

Simon bacarric aterazan  
 aimbeste genden artetic;  
 lotsaric gabe naiciola  
 eldu gurutce santutic.

Cembañ guerade mundu onefan!  
 juduen lagun gaiztoac.  
 beldur gueranaç eramatera,  
 Jesus onaren pausoac.

Ama andreac esaten dizu,  
 lotsaric gabe lagunceco;  
 ezzaducala deseorican,  
 jornala gabe usteco.

*Pecataria &c:*



## SEIGARREN ESTACIOAN.

Veronica pauso onetan,  
zayo Jesusi atera;  
pasaturic vere aurretic,  
belaunico jarcera.

Chistuz, ta loyaz beteric ceducan  
Jesus onac aurpegua;  
andre onec atera zuan,  
oyalbat ongui garvia.

Paraturic iru dobletan  
cion bereala garvitu  
onen balore aundiaz  
juduac ciran arritu.

Iru dobletan pagatucion  
Veronicari nequea  
estam paturic ustenciola  
bere aurpegui santua.

Jesus justoac veronicari.  
cubratu cion amorez,  
ezcuac ceduzquen loturic, eta  
despedituzan negarrez.

*Pecataria &*



## ZASPIGARREN ESTACIOAN.

Jerusalengo despedidan  
bigarreneco aldian;  
Jesus lurrera errorizan,  
portalearen erdian.

Burla gueyagoz ceramaten  
campora Jerusalendic;  
deshonrra zala urcatcea,  
ciudadean barrundic.

Ciudadean despeieran,  
ta burla aundiak aditcen;  
a la ere ango gendeaz,  
negarrez urcen asizen.

Bere aitari escatencion  
Jesusec modu onetan:  
usa dezala piedadez,  
bay ciudadate onetan.

Anai justoa iguzu arren,  
amoriozco viotza;  
barca diegun gueren etsayari,  
baliz ere eriotza.

*Pecataria &*



## ZORZIGARREN ESTACIOAN.

Pauso onetan itceguin cien,  
Jerusalengo alabay;  
Jesusen llaga cruel algatic  
negar eguiten ceudenay.

Alaba onac ez eguin negar,  
nere trabajuec gatic;  
bacarric negar eguinazute  
ceroc, eta semealgatic.

Jesus justoac apenazciluan  
agotic hitz oyec atera;  
esancionen? naidec itzuli  
mundua enganalcera?

Asi cites can judu gafstoac,  
osticoca ta golpeca;  
mendi ondora eraman zulen,  
negarrez, eta presaca.

Jesus ona eracuzzaguzu,  
alaba oyeri bejala;  
gueren cupaz negar eguiten,  
bestela galduac guera.

Pecataria &.



## BEDERACIGARREN ESTACIOAN.

Pauso onetan eijoalaric,  
calbarioco mendian;  
erorizan odol ustuta,  
irugarren aldian.

Ago santuaz lurra jozuan  
ela orzac citezcan atera;  
pena oyec esplicatceco,  
mingañic nun oteda

Erremedioric etzuen, ela  
cebillelaric gequitcen;  
llaga guztiac berritu, eta  
non berriz dan erorcen.

Aldapa berriz gógorra eta  
arri princez betea:  
ona cer gustoan gugatico  
cebilen Jesus maitea.

Judu gustiec ahi ciraden  
pauso onetan oyduque  
il bear agu eta juan adiagudo  
¡ Cer ! libertadea nai uque ?

*Pecataria &c.*

## AMARGARREN ESTACIOAN.

Quenduric bada soñecoac,  
 Jaunari burlatceco;  
 suerteac botacituzten,  
 norenzat izateco.

Lecu arretan arquitzenan  
 arri puntebat zorrotza;  
 larrugorrian eserizuten,  
 mundoço Redentorea.

Beazun miña emancioten  
 quedarrarequin nazturic;  
 edan cezala golpe batlan,  
 isuri gabe tantoric.

Juduec guero asi ciraden,  
 desafiatcen alcarri;  
 burla gueyago ceñec asmatu,  
 guztion Juez Jaunari.

Ayen artetic atera ciran,  
 deshonra ta blasfemiac;  
 humildadean sufrítucitum,  
 goratu gabe beguiac.

*Pecataria &*



## AMEICAGARREN ESTACIOAN.

Icaratcen naiz nere Cristabac  
esplicatcera agoaz;  
iru borrero Jesus viciric,  
ilcez jostera dijoaz.

Aundiak ciran matrilluaquin  
ematen cituzten golpeac;  
consideratu ordu artaco,  
Ama Semen doloreac.

Borrero ayen errabia  
gueyago atormentalceco;  
paratu zuten gnrutce pean,  
ilcez aseguratco

Jesus justoac zaiñ gustiac  
ceduzcan encogituric;  
josteagatic eren gustora,  
utci cituzten ausiric.

Amalau pausoz arraslaturic,  
gurutceaquin josita;  
Jiduec danzan asiciraden,  
bertan aseguratuta.

*Pecataria §.*



## AMABIGARREN ESTACIOAN.

Anai bat ona emen daucagu,  
pena, ta lastima garria;  
agoniaquin peleaturic,  
bi lapur oyen erdian.

Burua daуча macurturic,  
eta lepoco zañac ausiric;  
bere Aitari escatutceco,  
ecin jaso du beguiric.

Deitutcendio bere Aitari,  
eriotzaco puntuen;  
nolatao nazu desamparatcen,  
Seme bacarra munduen.

Lapur cruelac esancion,  
bere ezquerreco aldetic,  
baldin albadezaque libradì,  
orain gurutze ortalic.

Escuñecoac cranzuncion,  
viciro lastimaturic;  
gure penac justoac dira,  
Jaun onec ezdu culperic.

Lapur oien confesioa  
ceren zan diferentea;  
bata dago ceruetan, eta  
infernuan bestea.

Pecataria&.



## AMAIRUGARREN ESTACIOAN.

José eta Nicodémusec, instrumentuac arturic; ascatuzuten corpuz santua, biciro lastimaturic.

Gurutcetic erachizuten amorio aundien; ama onari paracioten, bere besoen erdien.

Seme Jaunaren trabajuac acabaturic guztiec, seguitendute aurrera ere, Amaren dolore aundiec.

Ecusiricen seme onaren odol, ta llaga cruelac; desmayaturic gueldituciran amarren begui ederrac.

Gugera causa ama andrea,  
zu penazceco dolerez;  
iriquitzazu gure beguiac  
seme Jaun orren amorez.  
*Pecataria &.*



## AMALAUGARREN ESTACIOAN.

San Juan evangelistec  
Nicodemus, ta Josequin;  
eramanzuten berreun pausoan  
corpuz santua berequin.

Lecu arretan iriqui zulen,  
sepulturebat berrie;  
enterraturic estalizuten  
corpuz consolagarrie.

Consideratu seme gabe,  
Ama nolazan guelditu.  
pasoa eguiten asiagatic  
ecin zuquean osmatuc.

Nequez badare juanzan  
Pilatos cruelaren echea;  
seme Jesusen pauso santuac  
bere artatic astera

Pensadezagun ote gueraden,  
mundu onetan portatzen;  
gabitzanean pecatuaquin  
munduko pompari seguitzen.

Y ha bada utsequin degu,  
garbi ditzagun bideac;  
nai ezpadu guero aditu,  
ichiric daudela ateac.

Ez du balio vitartekoac,  
arc guchiago diruac;  
confesioan bear ditugu,  
billatu ordu galduac.

Pecadorea adigazozu,  
deitcen dizun Jaun oni;  
erraz orain garaitcen nazu,  
beguira golpean erori.

*Pecataria &c.*

## RESURRECCIOA.

Guztioc dezagun oraiñ,  
Jesus maitía honrato;  
infernutan citualaco,  
milagro asco obratu.

Ilda bereala jechi ciñaden,  
Abrahanen seno artará;  
zuri esperan anden animac,  
laister cinduan aterá.

Piztu ciñaden illen arletic,  
irugarren egunean;  
aguertu ciñan Magdalenari,  
arenzat zorionean.

Berroguei garren egunean,  
igo ciñaden cerurá,  
berriz cerade elorcecóa,  
gu juzgatcera mundurá.

Ceru altuco eguzquia,  
illargui, ta izarraquin;  
ezagucera emangodezu,  
zalozcela coleraquin.

Lurrac ere emango ditu,  
viciro oídu illunac;  
tragatcen dituhala,  
jendeac, ta ondasunac.

Mundu gustian aditucoda,  
trompetaren soñu illuná,  
yequi zailezte juiciora,  
orainda nere eguná.

Errespuesta emango degu,  
bacoitzac beren contuan;  
consideratu descuido gabe,  
gauden arlean munduan.

Egun arretan emengaudenac,  
egon gaitean gozalcen;  
ez Jauna utci pecataríari,  
pauso santu oec astutcen.

Anima asco sartuditugu,  
ceruan pauso oequin;  
deseoz daude gu ecusteco,  
gloria artan berequin.

Consideratu cer eguindegun,  
trabaju erraz onequin;  
bitartecoac paraditugu,  
Aita Eternoarequin.

Anima oyec egongo dira,  
beti Jaunari escatcen;  
gureac arlu artean,  
beren compañi santuen.

Modu onetan guertadedilla,  
orain gaudenaquin emen;  
usa dezala piedadeaquin,  
guztioe esandezagun, Amen.

*Jesu-Cristoren Pasio Santuen  
izanean, Credo bat: eta Maria  
Santismaren alabanzan, Salbe  
bat.*

**FIN.**



N. S. de los Dolores